

Artea Elizatearen Bandera

Udal banderak.

Udal banderek Errekonkista garaian dute jatorria. Nafarroa eta Gaztelako erregeek, hartzen zituzten herri nagusiei edo zerbitzu garrantzitsuren bat eskaintzen zieten ematen zizkieten, sari gisa. Aragoiren kasuan, ez dago banderak udalerriei eman izanaren frogarik, baina badakigu osteei edo oste horiek erregeari gerra garaian laguntzeko osatutako miliziei ematen zizkietela. Libreak ez ziren kontzejuek jaunaren zutoihala edo beren ordena militarren bandera erabiltzen zuten. Horregatik, sanjuandarren bandera gorria, gurutze zuria zuena, askotan erabili omen zen Aragoian. Gaztelan “zutoihala altxatzeko” ohitura zegoen aspalditik, errege berria izendatzen zenean. Horrela, udalerrri hori izendapenarekin bat zetorrela adierazten zen. Ekitaldi hori gauzatzeko, karmin koloreko errege-zutoihal edo bandera txiki bat zegoen udalerrri bakoitzean, alde batean errege-armak eta bestean udalerrrikoak zituena. Zutoihal horietako asko eragin-eremuko udaletxeetan daude oraindik. Hori dela eta, batzuek uste dute aspaldiko udal banderak direla, baina ez da horrela. Edo bestela, nola azaldu gorri edo karmin koloreko hainbat bandera egotea, erdian udalerrriko armak dituztenak? Udal banderak XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran hasi ziren erabiltzen gaur egun erabiltzen ditugun moduan, udalerrri bakoitzeko nortasun-ezaugarriak berreskuratu zituen korrante historizista baten barnean. Berreskuratze-prozesu hori Gerra Zibilak (1936 -39) eta ondoko diktadurak eten zuten eta ez zen berriro abiarazi 1977 urtea igaro arte.

Bizkaian, formatu edo mota ezberdinetako banderak egon dira:

- 1. –Bandera karratuak, itxoroskiarekin edo itxoroskirik gabe. Atzealdea triangelu edo karratuz osatuta zegoen. Uste da bandera horiek zaharrenak izan daitezkeela eta Durangaldeari mugatuta daude.*
- 2. –Triangelu formako banderak, prozesio-estandartearenak.*
- 3. –Karmin koloreko bandera karratuak edo laukizuzen formakoak. Horien jatorria udal banderatzat oker hartutako errege-zutoihalean dago.*
- 4. –Bandera heraldikoak, armarrria zuzenean entseina bihurtzetik datozenak.*
- 5. –Laukizuzen formako banderak, xingola horizontal edo bertikalak dituztenak. Udal bandera nola izan behar den dioen irizpide nagusiarekin bat datoz.*

Artea Elizatearen Bandera

Hitzaurre historikoa

Artea Arratiako Merindadeko Elizatea da. Gobernatzeko errejidore zintzoa zuen eta Gernikako Batzar Nagusietan, hirurogei eta batgarren eserlekua eta botoa zituen. Hor Ganboatarren bandoaren alde bozkatzan zuen. Elizate hau Elexabeitia leinu-etxeko parrokiak Erdi Aroan batzeko ondorioa da. Izan ere, Elexabeitia aspaldiko bi errepublikak osatzen zuten. Errepublika horiek aldian lotuta zeuden, baina ez gai espiritualean. Gauzak horrela, Gazteluk (Castillo) Andre Mariari zuzendutako parrokia zuen eta Elexabeitiak, aldiz, San Migeli zuzendutakoa. XV. mendean aipatutako parrokiak banatutako lurak zituzten kapareenak ziren, ez erregearenak. Horrela ba, 1486 urtean Sancho Martínez de Castillo izan zen beren jabea.

Lurrealdea, funtsean laua da; mendiz inguratuta dago, eta Arratia ibaiak zeharkatzen du. Iraganean Arteagako bailara zeukan izena, eta horrek bat egiten zuen Arratiako bailararekin. Hori, Goi Erdi Aroan eta bandoen arteko gerren epealdian, Ganboatarren bandokoak ziren Abendañotarren kontrolpean egon zen. XV mendean, Arratiarengan zegoen kontrol horrek, bailara Jaurreriko beste toki batzuk bezala garatzea ekidin zuten. Erdi Aroko gizarte horretan, jaioterria eta gizarte-maila, abizenaren jatorria eta, batez ere, horren leinua bezain garrantzitsuak ziren. Oinaztar edo Ganboatar bandokoak izateko arrazoiak, gizarte horretako kideen arteko loturak dira, bai familiakoak edo ahaidetasun eta odolkidetasunekoak, edo beste arrazoi batengatikoak. Gure errepubliketako leinuak Ganboatarren bandoko jarraitzaileak ziren, eta horien gure leinuko ordezkaria Abendañotarren leinua izan zen.

Errepublika horietako bat izendatzeko erabiltzen den Gaztelu hitzak, zalantzarik gabe, IX mende amaieran bere mugarteetan eraiki zen gazteluan du jatorria. Hori, Fortunio Martínez de Zumelzu jaunak eraiki zuen, baina obra horretatik ez da aztarnarik geratu. Halaber, elizate honetako beste leinu batzuen dorretxeek ere ez dute iraun, hala nola, Bildosola, Ugarte, Gallano edo Moro leinuenak.

Fortunio Martínez de Zumelzu Mayor Iñiguez de Elejabeitia andrearekin ezkondu zen, eta beren egoitza, gaur egun hilerria dagoen lekuaren ondoan eraiki zuten. Bertan eraiki zen Gazteluko Andre Mariaren parrokia. Fortunioren aitaren armak "urre koloreko gaztelua, sugarrez inguratuta" ziren, Arabiako Muley-Amed buruzagiarena erre zuelako. Halaber, Fortuniok, Dueroko muga, mairuei, bandera berdea irabazi zien. Bandera horrek, bere itxura eta koloreko untxaria zeukan margotuta, urre koloreko lepokoa eta zilar koloreko katea zeuzkan, eta muturrak burdin beltzekoak, zutabe zuri bati lotuta.

Elexabeitia leinu-etxea Sancho Moro de Elejabeitia jaunarena zen, eta hori, María Ibáñez de Cirarruista andrearekin ezkondata zegoen. Leinu-etxea beren semea zen Martín Ibáñez de Elejabeitia jaunari eman zioten Antonia Ibáñez de Elejabeitia y Bandurriaga andrearekin ezkondu zenean. Horrela ba, Bandurriagan sinatu zen eskritura; Zeberioako bailaran, 1550eko uztailaren 31n. Elexabeitiako San Migel elizan, leinu honetakoek X mendean eraiki zutena, titularraren tailu erromanikoa ikus dezakegu. Horrek, gorri koloreko armarri handia dauka urre koloreko gurutze batekin. Heraldikoki definituta "atzealde gorrian, urre koloreko gurutze laua" da, eta arma horiek bat datoz Elejabeitia leinukoenekin.

Heraldika Artean

Bildosola: Urre koloreko atzealdean, gurutze gorria.

Bildosola: Atzealde gorrian, zuhaitz ihartua, behealde berdea, oinean bildotsa duela, eta gainean, ukitu gabe urre koloreko zitori horia. Leinu bereko beste batzuek, bildotsaren ordez zuhaitzaren oinetan etzandako zilar koloreko erbi-txakurra ipini zuten.

Castillo de Elejabeitia: Atzealde gorrian, zilar koloreko gaztelua, atean dobatxakur bi dituen, eta hamabi faxa urdin eta urre koloreko hamabi itxoroski dituen azpa.

Casti//o-Elexabetia: Atzealde urdinean, urre koloreko gaztelua, gainean, baina ukitu gabe, zilar koloreko izarra duena gazteluko dorre altuenetan.

Castillo: Atzealde berdean, urre koloreko gaztelua, sugarrez inguratuta; atean, zilar koloreko kateaz lotutako untxaria. Azpa gorria, urre koloreko zortzi itxoroski beteta.

Castillo: Atzealde gorrian, zilar koloreko gaztelua, bere hormetan zutitutako lehoi bi dituen. Azpa gorria, urre koloreko zortzi itxoroski dituen, zilar koloreko uhinak eta uhin urdinak txandakatuz.

Castillo: Urre koloreko atzealdean, lau banda urdin.

Cirarruista: Urre koloreko atzealdean, armariaren gainetik buru biko koroa arranoa agertzen da, beltza; behean Nafarroako kate beltzak.

Elejabeitia: Zutitutako armaria: 1.- gorria, zilar koloreko zitori horizontaleko itxura duen gurutzea; 2.- ezpataz armatutako besoa, eta behean kaskoa duen burua.

Elexabeitia: Atzealde gorriak, urre koloreko zitori horizontaleko itxura duen gurutzea. Urre koloreko hamabi uztai dituen azpa urdina.

Gallano: Zilar koloreko faxak eta faxa urdinak dituen pieza, hiru gapirio gorri dituen.

Moro de Elejabeitia: Zutitutako armaria: 1.- gorria, bordatutako eta lore itxurako gurutzea; 2.- zilar kolorekoa, ezpata biluziz armatutako besoa, ahoa odoleztatua duena, eta armariaren

Muturrean, mairu burua odola tantaka isuriz. Azpa urdin orokorra, urre koloreko hamabi "besante" txanpon dituena.

Ugarte: Atzealde beltzean, urre koloreko hiru faxa.

Zumelzu: Urre koloreko atzealdean, lau faxa urdin.

Artea Elizateko Armarrria

Zatitutako armarrria: 1 zatia: 1. Zilar kolorekoa, bost gari-azao itxoroskian; 2. gorria, urre koloreko palma, bandan ipinita; 3. gorria, urre koloreko gaztelua; 4. zilar kolorekoa, otso beltz bi; eta 2. zatia: 1. gorria, zituri horizko itxura duen urre koloreko gurutzeta; 2. zilar kolorekoa, ezkerreko aldetik ezpataz armatutako besoa irteten da, muturrean mairu burua dago, dena bere kolorean.

Arteako bandera

Gizatalde orok, beste batzuen aurrean identifikatzeko gehien erabilitako baliabidea bandera da. Gizakiak bere bilakaera historikoan izan duen bereizteko beharrarekin bat dator. Alde batetik, besteengandik bereizteko beharra, eta beste alde batetik, beste batzuei lotuko dieten elementuak aurkitzeko beharra, gizarte-kidetasunengatik, kultura-kidetasunengatik, etab. Aurretik esandako guztiak gure elizaterako ere balio du. Inon ez da agertzen Arteak iraganean entseina berezirik izan duenik, salbuespen bakarra dago: betiko karmin koloreko zutoihala. Ez Bizkaiak, oro har, ez elizateek, bereziki, ez dute entseina edo banderen erabilera ezaugarri izan, eta guztiz kontrakoa da eragin germaniarra izan duten herrialdeetan gertatzen dena.

Badakigu Erdi Aroan leinu garrantzitsuenek irudi, zutoihal eta estandarteak erabiltzen zituztela, eta bertan beren leinuen armak agertzen ziren. Gaztelako erregeak, Alfonso X "Jakintsuak" bere "Las Siete Partidas" lanean, hain zuzen bigarren agirian (XXIII izenburua, 12tik 15erako legeak), aipatutako entseinak nolakoak izan behar diren eta nortzuk erabil ditzaketen azaltzen duen arautegi osoa ezartzen du; halaber, "Código de la Coronación de los Reyes" eta "Libro de la Cofradía de Santiago" lanetan ere irudi hauek ikus ditzakegu. Arratiako merindadeari eta Artea elizateari dagokienez, bi izango lirateke aipatu beharreko entseina nagusiak: Alde batetik Abendañotarrena, atzealde horian, banda beltza, bere armetan dago oinarrituta: "Urre koloreko atzealdean, banda beltza"; eta beste alde batetik Gamboatarrena, urdina eta horia zena, bere armek honakoa baitzioten: "Urre koloreko atzealdean, hiru bihotz urdin ". Hemen hori aipatzen badugu, leinu biak Oinaztar bandoaren buru zirelako da; beraz, Elexabeitia eta Gaztelutarren leinuak, eta baita beraiei lotutakoak, bando horri atxikita zeuden, lotura ezberdinengatik bando batera edo bestera elkartuta egon ziren Tomás de Goicolearen leinu-etxeen zerrendaren arabera; beraz, leinu-etxe horiek aipatutako entseinaren pean egon ziren.

Martín de Anguiozarrek idatzi zuen Bizkaiko Merindade bakoitzak zituen herenek beren bandera propioa zutela. Hori, heren bakoitza identifikatzen zuen txalekoaren kolore berdinekoa zen. Gaur egun, ez dakigu zein kolore izan zen Arratiako Merindadearen adierazlea: badago horia izan zela esaten duenik; aldiz, beste batzuek berdea izan zela uste dute. Hala ere, batek ere ez du guztiz ziur jakiteko daturik eskaintzen.

.Aurretik azaldutako guztiarengatik, gure banderarako koloreak hartzeko orduan, gure elizateko elementu, ikur eta sinboloetan oinarrituko gara.

Gure armarrria deskribatu dugunean, zilar kolorekoa (zuria) eta gorria, zatituta, zela esan dugu; beraz, gure entseina egiterakoan hori kontuan hartu beharko genuke, bai itxuran eta baita koloreetan ere.

Arteko bizitzan garrantzitsua den beste elementu bat Elexabeitiako San Migel parrokia da. Horren inguruan sortu eta finkatu zen gure lehenengo herrigunea. Andre Mariarena geroagokoa da, eta hori, gizarte eta erkidegoaren, bai eta erakundeen eremua da. Izan ere, horren itzalpean egin ohi ziren bilera edo batzarrak, eta horietan, eragiten zieten gaiei buruz aritzen ziren. Horrela, errejidore zintzoa zuten buru, eta horrek, agintaritzaren ezaugarri zen lantza zeraman.

Beraz, Castillo eta Elejabeitiatarren ganboatar entseinaren kolore gorri eta zuria hautatuta, gure entseinak eduki beharko lituzkeen kolore eta itxuren funtsezko atala hautatu ditugu. Horrela ba, edozein banderari eska liezaiokeen betekizunak betetzen ditu: lehenengo eta behin, hartzaileen sentimendu, irrika eta ohituren ezaugarri izatea; eta bigarrenik, baina bestea bezain garrantzitsua, ezberdina eta berezia izan dadila, horrela, bere eginkizuna betetzeko: ordezkatu behar duen erkidegoaren identifikatzaile izan. Beraz, aipatutako koloreei dagokienez, nire ustez, gure elizateko biztanle guztiak eta beren habitata ordezkatzeko, urdina aukeratu beharko litzateke; horri ezaugarri berezi eta propioa emateko, aldiz, zitori horizko itxura duen gurutze horia gehituko genioke, Elejabeitiatarren armarrrian agertzen den bezala. Horiek, behar bada, San Migelen bereizgarri den ikonografiatik hartu zuten. Beste alde batetik, Gorbeiako gurutzeari ere egingo nioke erreferentzia, gure bailarari oso lotuta baitago.

Bandera baten ezaugarriak

- 1. – Laukizuzena izan behar da, eta zabalera bi unitate bider luzerako hiru unitateko proportzioa izan behar du.*
- 2. – Ahalik eta bakunena izan behar da, eta era berean, identifikatzailea.*

3. – Banderaren aurreko eta atzeko aldean, elementu guztiek izan behar dute antolamendu eta orientazio bera makilari begiratuz, gardentasun efektua emanez.

4. – Ez du armarria bertan izan behar, gehienaz ere, bertako elementu adierazgarrienak, hala nola koloreak eta irudiak; hala ere, armarria bandera bihurtzen denean bai agertu ahal izango da.

Elementu eta koloreak

1. – Castillo eta Elejabeitia leinuen armak.

2. – San Migelenganako lotura eta bere ikurrak..

3. – Banderak edukiko dituen irudiak geometrikoak bakarrik izango dira.

4. – Gure entseinaren funtsezko koloreak gorria, zuria, urdina eta horia izango dira.

4. – Elementu edo kolore guztiek norberak eman nahi dion esanahi sinbolikoa baino ez daukate.

Bandera proposamena

Bandera laukizuzena, 2:3 proportzioa duena; urdina, erdian hori koloreko zitori horizko itxura duena; gurutzearen besoak berdinak dira, eta aldetik aldera 4/5 neurria dute, eta horien zabalera 1/10ekoa da. Proportzio bi horiek entseinaren zabalera eta makilaren arabera; goitik beherako zerrenda zatitua, zuria eta gorria, horren zabalera, luzeraren 1/3 da.

*eta horrela ager dadin, banderetan aditua (Vexilologoa)
naizenez, fede ematen dut.*

Santurtzin, 2019ko abuztuak 26n

Juan José González

